

Zallako Udalak Eusko Jaurlaritzari eskatu dio hondakindegia ixteko

Cespa multinazionalak ez du bermatu ingurumena errespetatzen duenik.
Zallako Udalak ondasun publikoaren erabilerragatik sortutako kostuak ordaintzea exijitu du.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

GIPUZKOA ZERO ZABOR taldeak ezagutarazi du Bizkaiko Zallako Udalaren erabakia: “Udalak Eusko Jaurlaritzari eskatu dio Cesparen hondakindegia ixteko”. Udalaren webgunean irakur daitekeenez, eskari hori egin du “hondakindegia jardueran atzemandako arau-hausteez ingurumenean eta pertsonen osasunean dituzten eraginak arintze aldera”. Aurrerago dio Cespak ez duela epean egiaztatu Ingurumen Baimen Bateratuaren eraginkortasun-baldintzak betetzen dituela.

Baimen horrek ingurumen arloan sektoreko baimen guztiak batzen ditu. “Hondakindegia behin baino gehiagotan urratu du araudia hainbat alderditan, eta Eusko Jaurlaritzak, ingurumen arloan eskumena duen erakundeak, ez du bete zaintzeko eta kontrolatzeko erantzukizuna”.

Zallan Cespa multinazionalak –Euskal Herrian hondakinen kudeaketa herri gehienetan edo Cespa edo



Zallako hondakindegian Zabalgarbi errauste plantako eskoriak pilatzen dira, besteak beste.

FCCren eskuetan dago— daukan hondakindegian besteren artean Zabalgarbi errauste plantak sortutako eskoriak pilatzen dituela ezagutarazi zuen berrikita Ekologistak Martxan elkarteak. Zabalgarbi kiskaltzen dituen zabor tona guztien %23 ateratzen da labetik nonbait laga beharreko eskoria eta errautsez osatuta.

Zallako Udalak Cesparen hondakindegia dela eta salatutako irre-

gulartasunen artean aipatzen ditu honakoak ere: “Ezarritako mugak nabarmen gaintzen dituzten sulfuro eta amonio indizeak, hondakin ez onargarriak bertan uztea (besteak beste, Zabalgarbi zaborrak), suteak eta ez-tandak ekiditeko gasen kontrol falta, hodibiltzailera lixibiatuak isurtzeko mugak behin eta berriz urratzea, urak behar bezala ez kontrolatzea...”

Udalaren eskariak badu eduki ekonomikoa ere: “Udal erakundeak milioi bat eta erdi euro baino gehiago eskatzen ditu bide publikoak erabiltzeagatik. (...) Xedea da multinazional horrek bide publikoetako gainerako erabiltzaileek ordaintzen dituzten tasa berdina ordaintzea, beharrezkoak baitira trafiko astuna jasaten duten bideen konponketak ordaindu ahal izateko”. ■



Liburu azoka

Ermuan, maiatzaren 8tik 11ra Orbe Kardinalean.

EUSKADIKO LIBURU GANBARA

- Euskal eta erdal nobedadeak
- Euskal musika
- %10eko beherapena

Bizi irakurriz!